

EGIA TA ERRIA

«Egia esan bear da...» «Au egia da...», «Eriaki ala nai du...» «Eriaki ala esaten du...» «Erriaren alde ari gera...»

Itzetik ortzera darabilziguin esaker ditugu. Ari batekoak eta besteok. Era batekoak eta besteok. Iritzi batekoak eta besteok. Gure jokabide guziak bi itz oietan onarritzen ditugu. Onarritzen ez baditugu ere, zurrutu nai beintzat.

Z. A.'ri ere biak eskatzen zaizkio: EGIA ta ERRIA. EGIA erriarentzat, erriari, erriarena... Baña zein da Erria?

Elizkoi ori ala sinisgabe ori? Eskubitar ori ala ezkertar ori? H-zale ori ala H-ren etsai ori? Ikasi ori ala ezjakin ori? Esmatu ori ala lo dagon ori? Azpi-lanean, arrixku batean, ari dan ori ala ezertaz kezkatzen ez dan ori? Euskal-berri ori ala euskera txikitatik etxean bakarrik ikasi dan ori? Euskera benetan gorde ta landu nai dan ori ala beste elburu batzuk irixteko hida-laguntzat artzen dan ori?...

Oiek guziak eta geiago dira ERRIA. Baña gutxienez ori dana go-gaon artuta lan egin bearko du Z. A.'ak.

Z. A. euskaldunon asterokoa da.

Oso irikia izan bear du bezar. Talde jakin bati loto gabea. Erri xeari begira egia. Zerbatzen bearra sumatzen dun talde ori begira. Jakin-min apur bat daukanari erantzungo diona. Lotan dagon talde aundi ori pittinka-pittinka esnatuko duna. Euskera landu ta indartuz bateratuko duna.

Ez du izan bear erri xume ori lo-zorrotuko duna. Ez du izan bear arazoan estalgarri. Ez du izan bear euskera etxean eta kalean itzeginez bakarrik ikasi dun orri euskera zapuztuko diona. Pixkana euskera batura eramango gaituna baizik.

Edonork jaso dezaketen itz, esaera ta aditzak euskera batuan erabiliz. Esate baterako, zer ajola zaio izketan dakian erriari. «det. dot, dut, zun, zuan, gagoz, gaude, egiz, egiaz, zuekuz, zuekin, jarraituz, edo jarraituz» erabili? Beraz zergatik ez egin erriari inoiz ere «kalterik egingo ez dion gauzatan euskera batuan»?

Ori bai. Beti garrantzirik aundina euskal-joskera ta euskal-pentsaerari emanaz.

Jakiña. Ez ditezke bat-batean errian sartu mai batean artutako erabaki guziak. Izkuntza erriarena da. Ta erri orrek itzigitzen dun izkuntza jaso, gaurkoto ta landu bear da. Ta ikasiek eta izkuntzalariek artutako erabakiak azkarregi bete nai izateak euskeraz mintzatzen dan erri orren izkuntza zapuztu, auldu ta desegin dezake.

Baña orrek ez du esan nai, ikasientzat edo ikasi nai dutenentzat diran aldizkari ta liburuko, euskera batuan, erabakita dagon guzia zorrotz bezar, izan bear ez dutenik. Z. A.'ko ori bat edo beste orrela izan bear ez dutenik. Eta emendik urte batuetara, erri ori geiago oitu ta jaxten danean, Z. A. osoak orrela izan bear ez dukin.

Z. A.'ak egia zor dio bere erriari. Erri orrek jaso dezaketen eran eta neurrian. Erri ortan adierazi ditekenera.

Egi aundia bada Artxete jaunak Abuduaren 28'koan diona: «Eskritoreak bakarrik dakizki gaur eguneko eragozpenak. Eskritoreak berebiziko ekilibriyoak bear ditu egin. Komeriantiak alandre gañian bezelaxe».

Ez dezagun aztu au bakarrik dugula itxuraz zabalduetako beintzat. Au gabe gelditzea oso kaltegarri litzake euskerarentzat.

Baña ala ere arrixkatu egin bear du «komeriantiak alandre gañian bezelaxe». Ez du izan bear geldo ta atzerako.

Z. A.'ak bizi, esnatzalle, iriki, gaurko, atsegin, askatzalle, berri, euskaldun izanen bear du. Izan nai du.

BESTE PENTSATZAILA BAT P. C. REN ETERA

Aspaldidanik gogorki kritikatu, Roger Garaudy Frantzia'ko P.C.-aren atean dagoela esan ditek. Joan dan abendu P.C.-aren "L'Humanité" egunkari ofizialaren lehen horrialdean erabili da haren ideiak garrazki eta agirian kondentatzeko. Azterketa-lana sakonduz, argitaratu-berria du Garaudy'k bere azkeneko liburua: "Le grand tournant du socialisme", alegia, "Sozialismoaren bihurtze nagusia".

Gadaudy'rekiko gertaera oso inportantea da, eta Frantzia'n ez da soilik gertatzen. Louis Aragonen "Lettres Françaises" aldizkaria orain dala urtebete dabeatuta dago Mosku'n; eta aste haueatzen argi eta garbi esan diote URSS'etik "burgesiaren joko" egiten ari dala. Frantzia'ko P.C.-aren bi intelektual puntukoak, hortada, ortodoxia'tik kanpora gelditzen ari dira; lehena-gotik Sartre, Lefebvre, eta abar, dauden bezela.

Eta oso inportantea da, berriz ere, mundu guziko marxista izeneko intelektualik gehienak ortodoxia'tik urrutzen ari didalako: Have-mann, Adam Schaff, Georg Lucacs, Herbert Marcuse, Austria'ko Ernst Fischer egun hauean, eta abar. Herri guzietan, gazteria eta "intelligentsia" deritzana, belau berria bezar eta pentsatzaileen taldea, komunismoaren ortodoxiarean kontra daude. Era berean, 1968-ko bi politika-gertaera nagusiak (Paris'ko Maiatza eta Praga'ko Udaberria) marxismo ofizialaren kontada gertatu ziran.

Horra hor eginak.

Roger Garaudy'ren "tesis oker" horiek kondentatzea oso giro berezi batean gertatzen da; eta oso aztertu beharrekoak iruditzen zaizkit. Zein dira? Bil ditzadan hitz gutxira:

1. Atomoaren indararen erboluzioak, kosmoan barrera abiatzearen erboluzioak eta zibernetikaren erboluzioak, gotikik behera iraili dituzte produzio-teknikak; eta iraultzea gero eta sakonago egingo da ondoko urteetan. Hori dala-ta, marxismoaren atzeriderei eutsi arren, eta euste arren hain zuzen. Marx'ek berak bere garaiako egoeraz atera zituen ondorio batzuk alde batera utzi behar dira.
2. Garaudy'k ez du Marcuse onartzen: ezagunak dira honen kontra frantsesa k egin dituen kritika gogorrak. Ez dio, Marcuse'k beze-

la, neo-kapitalismoko langileria ez dala iraultzailea (ez dala erboluziozalea, alegia). Baina, Gramsci'k "zapo uoluntarij" puzibuz, "nəzəq 'nouveau bloc historique", "Kondaira-gizatalde berri" bat ikusi ute du bultzatzaile gaurko gigitzean; eta hau, Maiatza'ko gertaeretan nabar-men agertu dan bezela, langileek ETA INTELEKTUALEK osatzen dute; ez haiek soilki, ez haiek bultzatzaile nagusi ere.

3. Teknikak aurreratu ala, 'intelektualen' mordoia gora doa, eta 'langile' klasikoena behera. Teknika berriek gero eta hezkuntza edo eskola sakonagora bultzatzen dute; eta laster "langileen eskola-maila gaur intelektual ditzen ditugun horien eskola-maila bera bihurtuko da bat-zete beste", Garaudy'ren hitzez esateko.

4. 'Intelektualak', alderantziz, frantsesez 'cadre' deritzan giza-taldea (jeneruak, teknikoa, delinenteak, zibernetikako programatzaileak eta operatzaileak, eta abar), berez dira proletario. Erabiltzen dituzten produzio-tresnak (industria-makinak, konputadoreak) ez dira bere-nak, kapitalistenak baizik; eta, erabiliat, 'plus-valia' sortzen dute, edo-zen langile bezelaxe. Objektiboki, beraz, "intelektualen" gizo-taldea "burgesia" kontradizioan daude, lehen langile klasiko eta burgesea zuden bezelaxe (eta gaur dauden bezelaxe, jakina). Langilearen eta 'intelektualaren' artean, hortaz, eta sozialismoari buruz, batasun ESTRATEGIKO BAT egin behar da; ez artesoanekin egin behar dan batasun TAKTIKO, beraz.

5. "Kondaira-gizatalde" horri dagoitiko gaur Europa'n sozialismoa ekartzea, eta ez langile klasiko hutsari. Gizatalde honek dituen ezagugarriak eta izpiritu-keria, beraz, kontutan hartu behar dira. Hau dala-ta, U.R.S.S.-eko "modelo" ez digu guri baiho (hortatik bere liburu baten izena: "Pour un modele francais de socialisme"). Marx'ek berak eskatzen zuten bede atzeridete DIALEKTIKA modura erabilitea, eta ez MEKANIKA modura. Alegia: dialektikoki erabili ezker, herriaren egoerak edo abia-puntuak ALDATU egiten ditu o, dorioak, eta, nahi-eta-nahi-ez, sozialismo-modelo edo eredud berdinak behar dira herri desbedinetan. U.R.S.S.'eko modelo bere hortan 'importatu' nahi izatea, zentzugabekeria eta dogmateria da. Anti-marxismoa ere bai, mekanizismo hutsa dalako.

6. Komunista Alderdia aldatu egin behar da barnetik Garaudy'ren uestez. Lenin'en iritziak arbutatuz, Garaudy'k hau dio: "Gaur erabiltzen dan barne-jokabidea ez da ez demokratikoa eta ez zientifikoa, zientziak eta demokraziak, hain zuzen, jokabideen eta hipotesien hausnarketa LIBRO ETA LOTURA-GABEA eskatzen baitute".

7. Dubcek'en bidetik osotara, Garaudy'k pluralismoa nahi du; alegia, sozialista joeden multuztasuna aitoritzen du. Eta komunista alderdiari sozialista-erakitzean parte haundi bat kendu gabe, agintearren osotasuna P.C.-ari eta ez besteri ematearen kontra dago. Hori buruz esamik eta idatzirik dituen lanek ez dute zalantza egiterik uzten: Garaudy'k sozialista diran partidua eta joera guziak onatzen ditu. Bere iritzia hau da gutxi gora-behera: gure bidea zientziaren erabakerako dan ezker, ez dugu marxistok, dio berak, bildurrik izan behar. Egia gurekin dago, eta EKINTZAM nagusituko gera. Lege-nagusikidariak ez dugu behar.

Frantzia'ko Komunista Alderdiak herejetzat salatatu du joan dan astean. Berriz ere salatu du, egia esateko, Praga'ko gertaeren ezkerotik, Garaudy U.R.S.S.'en kontra baitago errotik.

Gure artean etiketek zatitzen gaituzte. Marxista hitza horietako bat da.

Garaudy'ren filosofia-oinarririk 'nahi dan bezela bataiatuak ere, eta ekintzarakoan alde batera utzirik, sozialismoari dagoenez ni Garaudy'rekin BAT NATORRELA esan behar dut.

Eta zuk, irakudle horrek, zer derituzazu?

Gure umeak, txikiak oraindik

Jakintu nago nolako gogoz ari diran idazle asko euskal literaturaren batasunari buruz. Ez da gai berria, zaarra baizik, Euskaltzaindia bera sortu ta eratu baiño ere lenagokoa; Onati'n lenengoz ospatu zan batzarraren ere, 1918'an, H. Gavel'ek txosten bat ager-erazi zuen, onela ziona: «Euskal idazkeraren batasuna. Literaturazko izkuntza baten bear-izana». Beraz, urrundik datorren auzia da; ta lur onetan bizi geran gutziantzat, naiz euskaldunak izan naiz izan ez, bezarko guraria danik ezin dezakegu ukatu.

Baña, Euskaltzaindiaren eta aipatu dedan txosten orren berrogei ta tmargarren urte betetzea zala-ta, Arantzazu'n izandako batzar batzuen ondoren, agiri danea, olako napilla sortu da, gure aldizkariaren orrialde-etan ere sarri ikusi gdeguez.

Ain bizi oia degun euskal literaturaren batasuna aurrera eramatea, gure izkuntza nik baiho sakonago ta obeki ezagutzen dutenei dago. Aleren, nik ueste det, Arantzazu'n eukitako Batzarrean burura ekarri ta adierazik, aurretik ere Ermua'n nintzen ni ere batzar aren gertatzeala bezela— izaniko izketaidiak norafiko indarra duten jakin bear gurek; alegia: gure umeak, oso txikiak oraindik, aia emen artzen duten euskal irakaskintzari buruz, nolako indarra duten izketa ta erabaki aiek.

Nire kezka ta duda ontatik dator: nire umeak doazen ikastolan Bizi-ka'ko euskera batua jarri dute; Bafi-ka'ko ez dakit, nere erantzun-bearrak eskatzen didan zeatasunarekin beintzat, euskera ori jarreak, izkuntzaren eta umetxoen psikologiaren aldetik bear dan beste segurtanta ta garanti duen; eta au, nere iritzian, jakin bearrezkoa zait.

Izkuntza, textu ezberdiak ikusten ditut, eta asko; marrakiz (dibujuak) dituzte berdiñak, bakar-bakarrik.

Ermu'ko Batzara gertatu aurreko izketaidietatik nik atera nuenetz eta bertan esku artu zuten Euskaltzaindiko kargu goi-goikoak dituztenak esan zutenek, nik orrela aitu nuen beintzat, orduan euskera idatzieren batasunazatzen genbiltzan bakarrik, eta asierako batzar batzuen erabaki aiek umetxoen irakaskintzen ere bertatik jarriko ziranik etzan esan.

Nire kezka geituz doa oraindik, len esaniko oroitzapena ospatzean Onati'n aotan erabili ziran asmo ta adierazpenak, inoiz ere umetxoen eskolaetan sartzeko eginak etzirala jekifiaz, ortan ibilli ziran askok esan ditanenez.

Berezkoa da nire nastea, beraz, eta naste au, ta kezka au nerea bezela beste aita askorena ere bada; baita orai onan egiazko bidea zein dan ez dakiten euskaldun askorena ere.

LEOPOLDO ZUGAZA

KEZKAK ERIO - ZIGORRA

Egia esan, «erio-zigorren» aurka itza atera gabe, ez nengon lasai. Batez ere, «Cuadernos para el Diálogo» aldizkariaren irakurkiri irakurri ondoren.

Aldizkari orren azaroko alean, danok egiten gaitu errudun Jose Martin Artajo jaunak. Munduan oraindik baldin bada agintariak eriotzez norbait zigortu deketen naziorik; erio-zigorra legez eman dezakean naziorik, alegia, erriaren guztiok gerala errudun, esaten digu.

Ain zuten ere, ixilik dagonak, ontzat ematen bait-du. Ez nuke arazo ontan errudun gelditu nai. Naikoa bedi orain arteko ixiltasuna. Bakoitzak bere iritziak eta arrazoiak garbiri azaltzen baldin baditu, orduan bai bakoitz geuron dezakeguntxoa ipiniko dugula.

Urte berria oso-osorik aurrean dugun ontan, ez dut gai egokiagorik arkitzen. Erri-iritziari bultzadaxto bat ematen alegindua nai nuke, «erio-zigorri» bein betikio eriotza eman dezaion gure zigartek.

«ETZAZU INOR IL», esaten du Jainkoaren Legeko 5'gn aginduko. Inork inor ez erailteza eskatzen dute itz biek.

Agindu zorrotz orren gaitetik, beti izan dira eriotzak mundua munda darena gerokoan. Ai Abel'en eriotzetik eta... gaurkotetara. Beti izan dira alkar-iltzeak. Aurrekoan izango ez balira, gaitz erdi!

Bañan erailte oiek txartzat gaitzetsi oi ditugu. Badiara, ordea, legez ontzat emandako giza-erailteak. Zenbait naziotan legez eskubide ematen die erri-agintari nagusiei, gaitzakeri berezieren bat egin duan errudunari erio-zigorra emateko, edo zuzenbidezko epaiaren ondoren erailteko.

Afrika eta Asia'ko nazioetan tinko eusten diote eskubide gogor oin. Ipar-Ameriketako Estadu Alkartueta, Estadu batzuek uko egin diote eskubide ori, beste batzuek zuzen eusten badiotere ere. Frantzia'n legez badago, baiñan beti-beti bizirik uzten dituzte erio-zigorrez epaituak.

Brasil'en oraintsu artu dote berriz, leen utzia zeuketen eskubidea. España'n zutik eta tinko dago erio-zigorra emateko eskubide-lezea. Bitartean, Inglaterra'n, bost ur-

tez kendutuz euki ondoren, betiko uko egitea erabaki dute joan dan urtearen azken-aldean.

Nortzuk eta noiz euki dezakete eskubide ori? Edonork ez beintzat! Ez edozein taldek eta ezta edozein agintari ere. Geinaz ere, nazio-aginte nagusia dutenek bakar-bakarrik.

Eta ez edozertarik. Jakiña, ditekenez zigorrik gogorre-na eta aundiena eman-al izateko, oker edo gaitzak aundienaren ordain izan bearko luke. Egi-egiaz egindako okerra danean bakarrik; eta zalantza-izpirik gelditu ez ditekten eran ziurki argibidetua litzakenean soil-soilik. Bestela ez.

Erio-zigorra eman oi zaienaren artean, bi mota nagusi bereiziko nituke. Gaizkilleak batetik; gizakiri naizta gizaritari kalte aundien bat egiten dionak, dirala giza-iltzaille, dirala lapur edo ondantzaile ta abar.

Bestetik, berriz, politika-arazoetako aukarlarik. Iritzi eta jokabidez Agintaritza nagusiarekin-bat ez datozelako, era bateko edo besteko ekintzaz aurka. erasozten dionak, alegia.

Zergatik agintari nagusien esku eriotza emateko edo bizia kentzeko eskubide ori? Gizartea babestegaitza eta gaizkilleari zor ziaon ordainia emateagatik. Ez dut nik beste arrazoirik ikusten.

Bidezkoa eta bearrezkoa da, noski, gizartea babestea. Gizarteari, lenengo eta nagusienik zor zailona, berriz, zuzenbidezko pakea da. Iltzailleak, lapurrak eta abar, zuzenbidezko pakearen aurkako gaizkilleak dira.

Oker-gintzaroko bideak moztu egin bear zaizkio. Or dagoz ortarako espetxeak eta giltzapate. Loturik dagozela, zer kalte egin dezaioekete gizarteari? Babesturik gelditzen da, beraz, zuzenbidezko pakea. Zertarako geiago?

Gizarteari gaizkile bideak ixten zaizkielarik, gaizkilleentzat oitira-berritze bide izan bear dute espetxeak. Orra bi lan bikain batera. Ori baiño gealagorik lortzen al da errudunari bizia kenduz? Ezeezkoan nago.

(10'garren orrialdean jarraitzen du)

Zeruko Argia
ZERUKO ARGIA

Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Naparroko-Kanturikoa ta Aragoiko Kapuzinoak argitaratua (Carlos III, 22. Pamploña) DONOSTIA'n:
Oquendo, 22 Telf. 26666

ARRIDE SARIA:

Barrun	215 pezeta
Korreo batasun-atarako errietan	265
Nertzierrietako beste errietan	285
Aidez Aurrez galdetu.	
Salmantan (Ale bakoitzaz)	5 pezeta